

Liburutegiak 23





AMIAera

Zilegi bekit hitz-joko batekin hastea sarrera. Begien aurrean duzuen aldizkari hau legealdi honetako azkenekoa da. Jasotzen duzuenean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deituta egongo dira, nahiz eta emaitza ez ezagutu. Ziklo baten AMAIA gerta liteke, agian, datozen hilabeteetan. Hemen, aldiz, besteak beste, AMIA analisia eskainiko dizuegu; askok gaztelaniazko siglekin ezagutuko duzuen DAFO analisia, hain zuzen; euskaraz Ahultasunek, Mehatxuek, Indarguneak eta Aukerek osatzen dute AMIA.

Izan ere, une egokia da honako hau legealdiaren balorazioa egiteko, betiere liburutegi sarearen kudeaketaren nire ardura eta esperientzia mugatutik abiatuta. Azken sei urteetan idatzi ditudan buletinaren sarrerak errepasatu ditut, eta saiatuko naiz ez errepikatzen, gehiegi, horietan esandakoak. Aurrerantzean ere egongo da norbait, tarte gehiagorekin eta perspektiba zabalagoarekin, azterketa sakonagoa eta zorrotzagoa egingo duena. Dena den, egun, ohitura lege, lehenik eta behin 2023ko jardueraren balantze laburra eskainiko dizuet.

2023. URTEA

Ez da erraza iazko urtea hitz gutxitan definitzea. Trantsizio edo egonkortze urtea izan dela uste dut. Koldo Mitxelena Kulturgunea Irakurketa Publikoko Sarean integratzeko hitzarmena sinatzea eta Balmasedako Horcasitas jauregiko liburutegiaren katalogazioa hastea (Kultura Ministerioarekin batera)

izan dira bi gertaera ikusgarrienak, baina ezin da utzi aipatu gabe Deustuko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmena, hango liburutegiaren katalogoa Bilgunean sartzeko.

Urte hasiera zalapartatsua izan zen eLiburutegiaren aplikazio berriak arazo asko eman zigulako, bai teknikariei, bai eta erabiltzaileei ere, horiei bereziki. Diru-laguntzak normaltasunez kaleratu ziren (1.000.000 euro liburuak erosteko; 300.000 teknologia berriak garatzeko eta 350.000 euro irakurketa bultzatzeko). Katalogoa handitzen jarraitu dugu eta 8.000.000 aleko langa gainditu ere egin dugu. 42.128 irakurle berri ditugu eta lortu dugu berriro 1.000.000 bazkidera hurbiltzea. Erabiltzaile aktiboen kopuruak (230.533) ia-ia berdindu egin du 2019ko kopurua. Materialen maileguak ez du lortu 2019ko marra gainditzea, baina oso hurbil ibili da: 2.744.226, 2019an eta 2.618.524, 2023an. Liburutegien arteko maileguak hirukoiztu egin dira 2019tik 2023ra, iaz 353.363 mailegu egon baitziren. eLiburutegiak, aldiz, bikoiztu egin ditu 2019ko datuak, baina, azti iragarle guztion iritziaren aurka, liburu digitalak ez du lortu, inondik inora, paperezko euskarria ordezkatzeko. Are gehiago, beherako joera erakutsi du; bestelako maileguek gora egin dute, ordea. Normaltasuna berreskuratu dugun honetan, emaitzak onak izan dira. Euskarazko materialen kontsumoaren jaitsiera da orban nabarmenena, nire ustez. Besteak, gehienak iazkoan aipatutakoak, gure (Eusko Jaurlaritzaren) muga erakusle dira: Liburutegi legea garatzeko moteltasuna; liburutegien arteko lankidetzaren eraginkorrak garatzeko ahulezia; irakurzaletasuna suspertzeko kanpaina indartsuagoak egiteko gauza

ez izatea eta liburutegien funtzioei buruz hausnartzeko mugak.

Sendotze zantzuak ikusita alde batetik eta eraldatu beharra, bestetik, une egokia da AMIA analisi laburtua gauzatzeko:

Amia AHULTASUNAK

Hainbat dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak dituen ahultasunak. Garrantzitsuena, indargunea ere badena, haren askotarikotasuna da. Udal liburutegi handiak eta txikiak ditugu bertan, liburutegi espezializatu eta orokorrak, publikoak eta pribatuak... Azpiegitura fisikoei eta, bereziki, giza baliabideei erreparatzen badiegu, izaera aberats horren atzean berriro beharreko egoitzak eta jubilazioen ondorioz ordezkatu beharreko langileak daude. Herri-erakundeon ardura da erronka horiei erantzutea, eta liburuzain berriei lan-baldintza duinak bermatzea.

aMia MEHATXUAK

Egunak 24 ordu ditu, ezinezkoa da errealitate hori aldatzea eta ugariak dira gutariko bakoitzari arreta eskatzen diguten eragileak. Lanari eta hurbilekoei (familiar eta lagunei) eskainitako denboraz gain, aisialdiak gero eta aukera gehiago eskaintzen ditu; bestalde, mendeetan giza bizitza ahozketasunean oinarritu bada ere, badirudi etorkizun hurbilean ahozketasun berriek (ikus-entzunezkoek eta sare sozialek) gero eta indar handiagoa izango dutela berriro, orain arteko irakurketa-ereduen kaltetan, bereziki belaunaldi gazteen artean. Are gehiago, eta 2022ko Ljubljana manifestuak (<https://readingmanifesto.org/>) salatzen zenez,

denboraren erabileran lehiakide izateaz gain, teknologia digitalek nagusitzearen ondorioz gure bizitzeko modua aldatzen ari da, baita gure lan egiteko era ere, ikastekoa eta, zer esanik ez, baita irakurtzekoa ere. Ez da aurreikuspen pozgarria; izan ere, orain arte, gutako askoren ustez, irakurtzeko gaitasuna ezinbesteko tresna zen iritzi kritikoa osatu eta garatzeko. Askok eta ondo irakurtzen duen gizartea sendoagoa izan da eta hobeto erantzun die garaiko erronkei. Liburutegi-sistemak erne jardun beharko du, datozen erronkei aurre egiteko.

amla INDARGUNEAK

Hiru dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegien indargune nagusiak. Bertako langileak, Katalogo Bateratua eta gizartean betetzen duen funtzioa. Liburuzainik gabe ez legoke ez sarerik, ezta liburutegi eraginkorrik ere, biltegi hutsak lirateke. Katalogo Bateratuak, teknologia berriek eta liburutegien arteko maileguak aukera ematen diete liburutegiei ahaleginak doitzeko eta lan kualitatiboa eskatzen duten esparru jakinetara bideratzeko. Adimen artifizialaren eta datuen kudeaketaren garaian, katalogatzea ez litzateke izan beharko sareko liburuzainen ardura nagusia. Bidean irakurleen bidaide egokia izatea da liburutegiaren arrakasta. Liburuak gordetzen dituen gune bat baino zerbait gehiago da liburutegia, zerbitzu ugariren iturri da, eta horregatik daukate estima handia herritarren artean.

amiA AUKERAK


Ezin da ukatu une honetan, gizarte-aldaketek, teknologia berrien indarrak eta sektore publikoaren funtzioen eta mugen inguruko gogoetek eragin

zuzena dutela liburutegien errealitatean, eta ez beti onerako. Aurpegi bikoitza erakusten digu gure munduak. Alde batetik, euskal errealitatean ondo txertatutako zerbitzua eskaintzen dugu (ia biztanleriaren erdia dugu bazkide). Bestetik, moteltze-berreskuratze geldo batean ari den sektorea gara. Esparru ugari ditugu eskura eta irakurzaletasuna indartzea da gure erronka nagusia.

Urte luzeetan, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuaren kezka nagusiak sarea biltzea eta Katalogo Bateratua osatzea izan ziren. Bi arlo horiek sendo ditugu; legealdi berriak izango du, ordea, zeregin ugari orain arte bigarren mailan izan ditugun esparru ugaritan. Liburuzainen laguntza, lankidetza eta presioa ezinbestekoak izango dira horretarako.

Ez adiorik, liburutegiren batean aurkituko nauzue.


Mikel Aizpuru
Kultura Ondareko zuzendaria






eLiburutegiko maileguak 2023an

Euskadiko liburutegien sareko mailegu digitaleko zerbitzuaren urteko bilakaerak goranzko joera erakutsi zuen, oro har, eta bilakaera positiboa izan zuen urtean zehar.



121.901


Maileguak - hilabeteka: bilakaera 2016-2022



2023an egiaztatu genuen maileguen kopuruak beheranzko joera izan zuela, pandemiaren osteko aldiaren ondoren izandako inertzia logikoek baldintzatuta.




Urteko maileguak: bilakaera 2015-2023



Pandemiaren ondoren urteko maileguen beherakada logikoa izan den arren, ikusten dugu kopuruak 2020 baino lehenagokoen oso gainerik daudela.



Maileguak udalerrika



Udalerrika, rankingaren ordena 2022koaren oso antzekoa da, eta nabarmentzekoa da Sopela mailegu gehien eman dituzten 24en artean sartu dela.




Maileguak 1.000 biztanleko




Maileguak 1.000 biztanleko

(5.000 biztanletik gorako udalerrietan)



Maileguak 1.000 biztanleko


(10.000 biztanletik gorako udalerrietan)




Erabiltzaile berriak

(bilakaera 2016-2023)


2016. urteaz geroztik, eLiburutegia zerbitzuak urteko 5.500-7.000 erabiltzaileen igoera metatu konstantea mantentzen du, eta hori pandemiaren salbuespenezko egoerak bakarrik aldatu du, 2020ko ekitaldian zifra hori 20.000ra igo baitzen.




eLiburutegiaren erabiltzaileak



Liburuak eLiburutegian



Mailegatuenak gaztelaniaz



El ladrón de rostros

Ibon Martín

832



Todo arde

Juan Gómez-Jurado

785



Esperando al diluvio

Dolores Redondo

690



El nido del cuco

Camilla Läckberg

653



Las madres

Carmen Mola

446



El cuco de cristal

Javier Castillo

443



El ángel de la ciudad

Eva García Sáenz de Urturi


417



La danza de los tulipanes

Ibon Martín


326



El mentiroso

Mikel Santiago

318



El libro negro de las horas

Eva García Sáenz de Urturi


311



Doce abuelas

Pablo del Río

304



Lejos de Luisiana

Luz Gabás

283




Mailegatuenak euskaraz



Miñan

Amets Arzallus
Ibrahima Balde



348



Bar Gloria

Nerea Ibarzabal



231



Eraikuntzarako
materiala

Eider Rodríguez


169



19 kamera

Jon Arretxe

145



Aitaren etxea

Karmele Jaio

145



33 ezkil

Miren Gorrotxategi


128



Maren

Alaine Agirre



112



Amaren eskuak

Karmele Jaio


97



Arotzaren
eskuak

Alberto Ladrón
Arana


90



Berriz
Zentauro

Katixa Agirre



90



Tulipen
dantza

Ibon Martín


89



72 ordu

Kepa Iribar

87



Filmak

eFilm online

eLiburutegia plataforman, ikus-entzunezkoek ere beren tokia badute...

Aurtengo apustu esanguratsuena arlo teknikoan izan dugu. Orain arte ordenagailuetan baino ezin zen eFilm eskaintza ikusi. Garapen teknikoa dela-eta, egun, eFilmeko pelikula guztiak eskuragarri daude bai gailu mugikorretan bai telebistetan ere.

Ikus-entzunezkoei ahalik eta ikusgarritasun zabalena emateko app propioak sortu dira. App horiei esker, eFilmen edukia edozein lekutatik ikusi ahal izango duzu, online, zure mugikorrean edo telebistan (iOS, Android, TB).



Filmen generoak




Drama




Komedia



Izua




Abentura



Animazioa

Filmik mailegatuenak




Erabiltzaileak

3.058
erabiltzaile sartu dira
zerbitzuan lehen aldiz

1.907
mailegu-hartzaile



19.607
mailegu-hartzaile
zerbitzua hasi zenetik





Irakurketa publikoko
sarea

Sarea zenbakitan



Atal honetan ekitaldi bakoitzeko daturik esanguratsuenak bildu ditugu, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen errendimendu-adierazleak erakusteko, kasu honetan, 2023koak. Atal honetan SIGB Absysnet-ek eskaintzen dituen datuak jasotzen dira.

2023an 2.618.524 ale eraman ziren maileguan; 2022an, berriz, 1.884.088. Iaz baino 208.912 ale gehiago utzi dira maileguan.

42.128 pertsona liburutegietako bazkide egin ziren, hau da, aurreko urtean baino 2.828 gehiago. Guztira, EIPSren erabiltzaile-txartela dutenak 976.465 dira, eta mailegu-hartzaile aktiboak, hau

da, 2023an gutxienez ale bat maileguan eraman zutenak 230.533 izan ziren, aurreko urtean baino 19.659 gehiago.

Liburutegien arteko maileguari (BPG) dagokionez, erabilera urtez urte handitzen ari da, eta 2023an 353.363 eskaera egin ziren, 2022an baino 52.699 gehiago. Horrek erakusten du zerbitzu hori Sarearen erabiltzaileek gehien estimatzen dutenetako bat dela.


Sareko liburutegien funts bibliografikoa 27.731 izenburu berriekin aberastu da, eta 234.356 ale gehitu zaizkio katalogoari. Hori dela eta, Sarearen katalogoak 1.452.381 titulu eskaintzen ditu.

Sarearen iraunkortasuna agerian geratzen da katalogatu beharrik gabe alta ematen duten aleen kopuruan eta liburutegien arteko mailegu-zerbitzuan.

Eta, azkenik, 3.310.810 bilaketa egin dira OPACen, aurreko urtean baino 304.476 gehiago.

Mailegatuena...

...irakurrienak



...ikusitakoak




...entzundakoak




...irakurrienak



...ikusitakoak




...entzundakoak




Mailegatuena... euskaraz


...irakurrienak




...ikusitakoak




...entzundakoak




...irakurrienak



...ikusitakoak



...entzundakoak





Liburutegi Publikoen XI. Biltzar Nazionala



2023ko urriaren 18, 19 eta 20an, Liburutegi Publikoen XI. Biltzar Nazionalean izan nintzen, Iruñean. Erabakia hartzea kosta egin zitzaidan arren, eta bertan egoteko mesfidantza izan nuen arren, egia esan pozarren itzuli nintzen, eta ziur nengoen hurrengo biltzarretara joaten saiatuko nintzela.

Hasieran izan nituen erreparoa hauek izan ziren: udal txiki samar bateko liburutegia izanik, lankideek ezin zuten nirekin joan (uste dut lagunik gabe bertaratu zen pertsona bakarrenetakoa izan nintzela), nire lana egiten geratu behar zutelako. Uneren batean, Iruñako Batzar Jauregira sartzean, zalantza egin nuen nire erabakiaz.

Baina beldur horiek desagertu egin ziren zegoen giro bikaina eta mundu guztia berriketarako eta esperientziak kontatzeko prest zegoela ikusi nuenean. Bertan, Espainiako Estatu osoko 450 liburuzain inguru elkartu ginen. Bi urtean behin egiten den biltzarra da, eta jakina, jendeak elkar ezagutzen du, errepikatu egiten dutelako, baina, nahiz eta ni aspaldian ez nintzen joaten, primeran sentitu nintzen.

Euskal Autonomia Erkidegotik 21 lagun geunden (adibidez, Langraiz Oka, Irun, Eltziego...), eta Bizkaitik Muskiz (Fernando Juarez buru zuela, lankide handia, eta bereziki eskertzen diot nirekin izandako jokabidea); Ermua, Leioa eta Zalla ere

gogoan ditut. Barkatuko inor ahaztu badut. Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuko ordezkari batzuk ere bertan izan ziren (haiekin hitz egin ohi dugu), eta horrela, aurpegiz ezagutu nituen.

Nafarroako Gobernuaren ekitaldia antolatzeko egindako lana nabarmendu nahi nuke, bikain tratatu gintuztelako eta, nire ustez, biltzar bikaina prestatu zutelako. Bertan ez ziren falta izan hainbat jolas-emanaldi (magoak, ipuin-kontalariak, musika-taldeak); sekulako aurkezpena, gosariez, bazkariez eta primerako afariaz gain Iruñako katedralaren klaustroetako batean, bertaratutako guztientzat. Egia esan, xehetasun guztiei erreparatuta prestatutako ekitaldia iruditu zitzaidan.

Hitzaldi, ponentzia eta mahai-inguruetan jorratu zenaren labur-labur bat azalduko dut, baina biltzar honen benetako balioa, nire ustez, honako hau izan da: bertaratutako liburuzainekin sortutako loturak, kontatutako esperientziak, pasadizoak eta gure artean finkatutako harremanak. Hori dela eta, niretzat egundoko esperientzia izan zen.

Biltzarraren edukiari dagokionez, aberasgarria izan zen. Azpimarratu egingo nuke, adibidez, Europako politikei, asoziazionismoari, araudiari eta abarri buruz han azaldutako guztia. Europeana delakoa ezagutzen nuen (Europako material historiko eta kulturalerako sarbide digitaleko plataforma, Europa

guztiko erakundeen milioika artikulu eskuratzeko, kulturaz, arteaz, musika liburuak, moda, zientzia, kirola...), baina oso interesgarria iruditu zitzaidan han gai horri buruz azaldu zena.

Europako asoziazionismoaz ere banekien: EBLIDA, NAPLE, PUBLIC LIBRARIES 2030. Liburutegi publikoen arloan hainbat eskumen dituzten elkarteak dira. Biltzarrean indartu egin zen haien eta beste batzuen arteko lankidetzaren programa bat ezartzeko ideia, Europar liburutegien lana indartzeko ahaleginak bateratze aldera.

2022ko UNESCOren Manifestuaz eta haren berrikuntzaz ere hitz egin zen, eta gaur egungo egoera teknologikoa eta soziala erakutsi. Mintzagai ere izan genuen kulturarako 2023-26 lan-plana ere, hau da, Europar Batasun osoan kultura-politikak lantzeko bide-orria.

Horretaz guztiaz gain, gugandik "hurbilago" dauden gaiak eta kontuak aipatu zituzten: liburutegien legedia, liburuzainen profilak, LEPetarako gaiak, liburutegietan ditugun baliabideak, nondik datozen, finantzaketa, inbertsio-politikak, etab.

Inoiz entzun ez nituen kontzeptuak entzun nituen, adibidez, "biblioteca faro", "bibliotecas hexagonales", "laboratorios ciudadanos", baita "design thinking" kontzeptua ere. Tailer bitxi eta entretenigarria izan zen.

Era berean, liburutegiak sustatu behar dituen han entzundako balioak nabarmendu nahi ditut:

demokraziarako zentro bat izan behar du, pertsona seguruen gune publiko segurua, non aniztasuna, bizikidetzaren eta inklusioa egon behar duten beti. Herriarren partaidetzarako balio behar du, eta hori erraztuko duten tresnak jarri; integratzaile, aldaketa sozialerako, adierazpen-askatasuna sustatzeko, politika berdeak eta espazio iraunkorrak sustatzeko balio behar du. Informazioa eskuratzeko, irakurtzeko, idazteko ahoz adierazteko eskubidea, eta kulturaren modu aktiboan parte hartzeko eskubidea bermatu behar ditu.

Amaitzeko, esango dut nire lanarekin HUNKITUTA nagoela, liburuez MAITEMINDUTA nagoela, eta honelako gauzek pertsona hobeak eta LIBURUZAIN hobeak izatea eragiten didatela.

Han egongo naiz, espero dut, bi urte barru.

Nati Allende Aretxabala
Zallako emakume, etxekoandre eta liburuzaina.



Mikel Begoña: "Liburutegiak komikiaren ekosistemaren parte dira eta horretaz jabetu behar gara"

Aski ezaguna da erakunde baten aktiborik baliotsuena langileak direla, eta Irakurketa Sare Publikoak % 100ean betetzen du hori. Aldizkari honen aurreko orrialdeetan irakurri ahal izan dituzuen datu horiek guztiak hutsaren hurrengo irateke erabiltzaileak artatzen dituzten, entzuten dituzten, proposamenak egiten dituzten, azken batean, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobetzeko lan egiten duten 1000 profesional baino gehiagoren lana egon ezean. Profesional horietako bat Mikel Begoña Garaizar da, eta harekin lanari eta komikiei buruz hitz egitea plazer handia izan da.

Mikel Bilbon jaio zen eta 1995ean hasi zen liburuzain lanetan. 29 urte hauetan bi liburutegik markatu dute: San Frantziskoko eta Begoñako udal liburutegiek. San Frantziskoko liburutegia berezia da Mikelentzat, 10 urtez bertan lan egin zuen eta berarentzat esperientzia aberasgarria izan zen, bai maila pertsonalean bai kulturean. Esan duenez, liburutegi horretara jende gaztea joaten da, askotan auzora iritsi berria, eta liburutegira joaten da erreferentzia gisa. 'Liburutegiak Topaleku' programaren sorreran parte hartu zuen. Programa horren helburua zen liburutegiak baliatzea egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren kulturen arteko integrazioa lortzeko -gune gisa, besteak beste, berdintasuna, tolerantzia eta aniztasuna balioak sustatuz. Azken helburua zen etorkinek liburutegiak zerbitzu publiko interesgarritzat hartzea, beren kulturei buruzko literatura-argitalpenak, informazio-argitalpenak eta

abar eskuratu ahal izateko, eta, horrela, gizartearen gainerakoarekin loturak sustatzeko.

San Frantziskotik Begoñara joan zen, liburutegi handiago batera, funts moderno batekin, liburuaz gain beste euskarri batzuetako materialak zituena. Gaur egun, liburutegi horretan lan egiten du, komiki bilduma hobetzeko eta handitzeko asmoz; izan ere, zaletasun horrek ekarri du bera liburutegitik kanpo ezaguna izatea eta euskal komikigintzaren historiarekin zerikusia duten hainbat erakusketen komisario lanetan aritzea, bai eta Getxoko Komiki Azokan (2023) saritzea ere. Baina azken horretara iritsi aurretik, komikiarekiko grina hori nola sortu zen ikusiko dugu.

Mikelek kontatu digunez, 80ko hamarkadan frantsesa ikasten hasi zen, eta horri esker bizi izan zuen komikigintzak 90eko hamarkadaren amaieran



Frantzian bizi izan zuen loraldia. Baionako dendetan sekulako eskaintza zegoela gogoratzen du, eta "Virgin" dendara joaten zela, eta bertan eleberri grafikoak erosten zituela. Gero, komikiaren berpizkunde hori hegoaldera igaro zen, eta Astiberri argitaletxea sortu zen... Zenbat eta gehiago murgildu mundu horretan, orduan eta gehiago ezagutzen du eta gehiago gozatzen du, eta horri esker komikiekin lotutako ekimen hauetaz hitz egin digu:



Parrapean Komiki Egunak

Komiki mundura hurbiltze horri esker, 2014an euskarazko komiki jaialdi baten antolakuntzan parte hartu zuen, Parrapean Komiki Egunak izenekoan. Begoñako liburutegiak zuzenean

parte hartzen zuen ekitaldiaren antolaketan, beste eragile batzuekin lankidetzan. Parrapean ekimenaren esparruan, egileek beren komikien aurkezpenak egin zituzten, beste herrialde batzuetakoek barne, eta antolatu ziren erakusketak, hitzaldiak eta egile gazteentzako komiki-lehiaketa. Euskarazko komikigintzaren aitzindari eta sustatzaileei emateko sari bat ere inauguratu zen. Lehen edizioan, saria Joseph Caminok jaso zuen gerraosteko euskarazko lehen tebeoa, Pan-pin, bultzatu zuelako, eta, edizio horretatik aurrera sariak bere izena hartuta, Gregorio Murori (Harriet), Antton Olariagari eta Daniel Redondori eman

zitzaien. Jaialdia 2017an desagertu zen, baina sariak bizirik iraun du izen horrekin, eta HernaniKomik komiki-jaialdiak (Hernaniko liburutegiak antolatua), Parrapean komikiaren lekukoa hartu duenak, bere azken bi edizioetan gure komikiaren historiako beste egile handi batzuei, Jon Zabaletari eta Juan Luis Landari, eman die berreskuratutako saria.

HernaniKomik

Aurretik aipatutako jaialdia, HernaniKomik, 2022tik ari da egiten, eta, beraz, aurtengoa, azaroan, hirugarren edizioa izango da. HernaniKomiken ardatz nagusia da gune estalia izatea Hernanin, oso egokia, euskal komikigintzaren azoka egiteko, non urteko nobedade guztiak eskura daitezkeen autore ugari bertan direlarik, nahi duenari liburuak dedikatzeko. Tailerrak, erakusketak eta zuzeneko marrazkiak egiten dira, eta Joseph Camino saria irabazi duen egilea omentzen da.

Mikelen hitzetan, jarduera hau antolatzeko dedikazio handia behar da, lanorduetatik kanpo. Liburutegiarentzat oso ekarpen aberasgarria da, jarduera asko egiten baitira: liburu aurkezpenak, tailerrak... Ekitaldi honen antolatzaille nagusia Hernaniko liburutegia bera da, eta bere lana babesten komikizaleen talde txiki bat dago, besteak beste, Harriet argitaletxeko kideak, Xabiroi aldizkariko Dani Fano, Alai Zubimendi (Comic Gaueko liburudendakoa), herriko egileak, hala nola Axi... eta guztien artean lantalde on bat sortu dute arrakasta izaten jarrai dezan.

Komikeri

CKomiki-dibulgatzaile gisa, alde batetik, Komikeri komiki-bloga sortu zuen 2011n. Komikeriren helburua euskarazko komikiaren ekoizpen historikoa aztertzea da, baita bederatzigarren artearekin lotutako albisteak jasotzea ere. Komikerik gaia jorratzen duten beste blog batzuekin partekatzen du espazioa. Nagusiak Igor Leturiaren "E-gor blog" eta Iñaki Otamendik sortutako Komikipedia dira. Liburuzain gisa, Mikelentzat tresna ona da eguneratuta dagoelako, sistematikoa delako, egileen informazioa eta komikien gomendioak biltzen dituelako... informazio iturri bikaina da liburutegiko bilduma osatzeko orduan.

Bestalde, hainbat erakusketa antolatu ditu:

Euskal binetak: 1894 - 2014

2014an ere, Mikel Begoñak "Euskal binetak: 1894 - 2014" erakusketa aurkeztu zuen. Bertan, euskal komikigintzaren ibilbidea egin zen historian barrena. Zehazki, euskaraz argitaratutako komikien erakusketa bat egin zen, 1894. urtetik 2014. urtera bitarteko hogeitazazpi paneletan, eta binetak, aldizkariak, albumak edo komiki digitalak ikusi ahal izan ziren. Youtuben berriro ere erakusketaren laburpen interesgarri bat ikus dezakegu (Youtuben "Euskal binetak" idatziz gero, lehenengo emaitzan aurkituko dugu). Mikelek esan digu erakusketa honetako materiala eskuragarri dagoela erakutsi nahi duen edozein liburutegirentzat.

Komikiei buruzko gogoetak

Miguel Begoñarekin izandako solasaldian gai asko agertu dira, eta laburpen gisa honako gogoeta hauek azpimarratu nahi dizkizuegu:

"Une egokia da, asko eta kalitatezkoa argitaratzen ari da. Liburutegian ahalik eta gehien erosten saiatzen dira. Historikoki hutsuneak egon dira, adibidez, haurrentzako komikigintzan gutxi argitaratzen zen; orain, berriz, egoera orekatuagoa dago, adibidez, manga komikia euskaraz argitaratzen baita"

"Asterixen lurraldean Narutok irabazten du"

"Liburutegietan gorantz doan arte horren aberastasuna aprobetxatu beharko genuke"

"Adibidez, ilustrazioko azken Euskadi Saria komiki bat izan da, salmenta arrakasta handia izan duen lan bikaina"

Lan nagusiak:

"Hiru etxe Santa Monikan"

"Helize"

"El pico de los cuervos: matar a Franco"


"Berunezko itsasoa : Matxitxakoko guda "

"Liburutegietan komiki asko mailegatzten dira, liburutegiak komikiaren ekosistemaren parte dira eta horretaz jabetu behar gara. Haurrentzako euskarazko komiki sailak daude, adibidez, Harriet (Kabe zigilua) eta Astiberri (Txikiberri saila) argitaletxeenak "

"Ez dira gauza bera literatura eta komikia, beste arte bat baita; horri, 9. artea deituko nioke. Zinearen ezaugarriak ditu, literaturarenak... baina bestelakoa da"

"Euskal Herrian autore harrobi itzela dago. Batxilergo artistikoei esker; gainera, ideak ez dira falta, euren lana zabaldu beharko genuke erakusketen bidez, hitzaldietan...Talentua dago, zabaldu behar da, baina baldintza duinak izan behar dituzte"

Espero dugu bere hitzekin gozatzea guk harekin hitz egiten dugun bakoitzean gozatzen dugun bezalaxe, eta animatzen zaituztegu haren obra ezagut dezazuen eta eman digun informazioa kontsulta dezazuen.



Liburutegietako zerbitzuei lotutako hiru dirulaguntzez...

Orain arte egin den bezalaxe, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak liburutegietako zerbitzuei zuzenduriko hiru dirulaguntza ezberdin ematen jarraitzen du urtero.

Irakurzaletasuna eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuen erabilera sustatzeko, 2023an, 146 dirulaguntza eskaera erregistratu dira epearen barruan –denak onartuak–; hau da, 2022. urtearen antzeko kopurua, orduan 151 eskabide zenbatu baitziren. Handitu egin da, ordea, guztira bideratutako zenbatekoa: 2022an, 330.000 eurokoa zen, eta egungo dirulaguntzan, berriz, 350.000 eurokoa. Ondoren, erakunde eskatzaile onuradunek egindako jarduerak justifikatzeko egiaztagiri guztiak aurkeztu dituzte, eta horretarako azken eguna 2024ko urtarrilaren 2a izan da.

Bestalde, 2023an Euskadiko liburutegietako liburu-funtsak berritzeko edo/eta handitzeko dirulaguntzek, guztira, 1.000.000 euro banatuko dituzte; 2022an, aldiz, 700.000 euro izan zen orduko zenbatekoa. Jasotako 178 eskaerak –urtebete lehenagoko 196 eskaerak baino gutxiago– hiru laguntza-ildotarako dira: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko Liburutegi sortu


berrietarako fundazio-sortak erosteko; gauza bera Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartuta ez dauden euskal liburutegietarako; hirugarrenik, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako funtsak berritzeko. Eskaera horietatik guztietatik bakarra ez da onartu. Dirulaguntzaren agiri bidezko justifikazioa 2023ko abenduaren 31 baino lehen egin behar izan dute. Hirugarrenik, 2023an, teknologia berrietarako dirulaguntzaren 300.000 euroak banatzeko, 90 eskaera jaso eta onartu dira (aurreko urtean baino hiru gehiago), eta 2023ko abenduaren 30era arteko epea izan dute eskatzaileek justifikatzeko. 2022. urtean, 350.000 bideratu ziren teknologia berrien dirulaguntzara.

Hiru dirulaguntzen justifikazioari helduz, 2023rako zenbatekoaren zati bat ez zaie emango hainbat eskatzaile, ez baitute justifikatu, kasuan kasu, bakoitzari dagokion zenbateko osoa; baten batek, ordea, ez du jasoko ezer ere. Dirulaguntzaz dirulaguntza, irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera bultzatzekoan, eskatzaile guztiei emango diete dirulaguntza; halere, horietako hemeretzirentzat, orotara 3.123 euro banatzeke geratuko dira. Liburu-funtsak berritzeko edo/eta handitzeko dirulaguntzaren eskatzaile guztiek

–batek izan ezik, uko egin diolako dirulaguntza justifikatzeari– hasieran esleitutako zenbatekoa eskuratu dute, hemeretziri izan ezik, murriztu egin baitiete: aurreikusitakoa baino 20.008 euro gutxiago dira guztira. Teknologia berrien kasuan, 10.106 euro geratu dira erabili gabe: hamalau kasutan eman beharreko zenbatekoa murriztu zaie, eta beste batek uko egin dio dirulaguntzari.



Topaleku



Liburutegien arteko komunikazioa zabaltze aldera 2019an “mini-site” edo “blog” bat sortu zen. Baliabide honen bidez erraz argitaratu eta konpartitu daitezke berriak, ekitaldiak, gomendioak, estekak...

Liburutegiak Topaleku deitzen den eremu honek bideratzen du ere liburutegi baten webgunean beste liburutegi batek sortutako edukiak txertatzea.

Aurten, proiektu hau indartzeko jardunaldi bat antolatu genuen Bilbon eta harrera zabala izan zuen Sareko liburuzainen artean.

Zerbitzutik ere blog honetan parte hartzen dugu beste liburutegien antzera eta azken hilabeteetan hogeitaz sarrera baino gehiago argitaratu ditugu Zerbitzuaren berri ematen.



2023an egin dugu...

2023an, Euskadiko Liburutegi Sistemaren aplikazioak eta katalogoak eguneratzeko proiektuarekin aurrera egin genuen. 2022an hasi ginen Bilguneko liburutegien katalogo kolektiboa berritzen, eta 2023an eLiburutegia aplikazioa hobetzen jarraitu genuen. Aldi berean, autoritateen katalogo elebiduna (AUBI) garatzen hasi ginen.

AUBI berritzean, Absys-en 2.3.1 bertsioaren funtzionaltasunak kontuan ditugu katalogo kolektiboetarako bereziki diseinatutako elementu berriak txertatzeko. Horri esker, onartutako 300.000 autoritate baino gehiago sartu eta kontsultatu ahal izango dira, modu azkar eta errazean.

Gainera, hainbat auditoria egin ditugu katalogoen kalitatea hobetzeko. Lortutako datuak ebaluatzen eta zuzenketak egiten ari gara urtean zehar. Etengabeko ahalegin hori funtsezkoa da gure erabiltzaileen beharrak asetzeko eta liburutegiek komunitatean duten zeregina indartzeko.

2023an sortu zen berrikuntza garrantzitsu bat Lege Gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legea aldatu zuen maiatzaren 4ko 8/2022 Legea urtarrilaren 2an indarrean jartzea izan zen. Lege berri honen berrikuntza nagusien artean dago editoreek liburu eta argitalpen seriatuak inprimatu aurreko artxibo bat gordailutzeko betebeharra.

Araudi berri horrek Euskadin Lege Gordailuaren aplikazioa garatzera eraman gintuen, eta, horri esker, artxibo digital horiek gure erkidegoan utz ditzakegu, Espainiako Liburutegi Nazionalean (BNE) egin beharrean. Gainera, gure erkidegoan gordetako artxiboak BNEra modu koordinatuan bidaltzeko aukera ematen digu. Horrek esan nahi du euskal editoreek jada ez dutela gordailua bi leku desberdinetan egin behar, eta horrek prozesua errazten du eta, paperezko aleaz gain, argitalpenen kopia digital bat gordetzeko aukera ematen du.



2024an ari gara...

Liburutegi Zerbitzuaren oinarrizko lanekin jarraitzen dugu aurten ere, lan horiek dira-eta gure eginkizunen ardatza. Hortaz, Sarearen mantentze lanak, liburutegien arteko mailegua, dirulaguntzen kudeaketa, irakurketa klubaren jarraipena edota eLiburutegiaren indartzea gure eguneroko jarduna osatzen ari dira. Horrez gain, Kultura Ministerioan hainbat taldetan parte hartzen jarraitzen dugu, hala nola mailegu digitalaren talde teknikoan.

Momentu honetan azken ukituak ematen ari gatzaizkio hainbat hitzarmenari: Arabako Foru Aldundiarekin (Ignacio Aldecoa Kultur Etxea), Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta CEDRO eta EKKI entitateekin. Laster sinatuko direlakoan gaude. Aliantzak ezinbestekoak dira aurrera egingo badugu.

Beste aldetik, iaz Gipuzkoko Foru Aldundiarekin sinatu zen hitzarmena -Koldo Mitxelena Kulturunea liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratzeko- errealitate bilakatzeko zorian gaude eta fusioa uda baino lehen gauzatuta izango da. Azkenik, irakurketa-planari bultzada bat emateko lanean jarraitzen dugu eta baita liburutegien maparen hasierako lanekin.

Bizitza soziala

2023an, zenbait lankidek erretiroa hartu dute. Liburutegi Zerbitzuan, hain zuzen ere, Mirarik erretiroa hartu du. Arabako ordezkartzan lege-gordailuaren lana egiten zuen, teknologia berrietarako dirulaguntzaz arduratzen zen, bai eta eLiburutegiari lotutako hainbat kontu egin ere. Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik, zorte on bizitzaren aldi berri honetan.

Horrez gain, honako erretiro hauek jakinarazi dizkigute, Zestoan, Bilbon eta Hondarribian. Lankideek hitz polit hauek bidali dizkigute Sareko langile guztientzat. Onena opa dizuegu.



Amaia

Zestoako liburuzain Amaia G.-k gutun hunkigarri hau bidali digu:

Kaixo denoi:

Zestoako Liburutegian 37 urte baino gehiago eman ondoren, jubilatzea tokatu zait, eta urte hauetako lana,

arazoak, ilusioak, hanka sartzeak, ondo egindakoak, denak etortzen zaizkit gogora. Baina batez ere pertsonak, liburutegira niregana etorri zirenak zerbaiten bila (herri txikietan bakarrik egoten gara, eta urte gehienetan ordutegi murritzuan), azkenean lagun bihurtu direnak.

Eta zer esanik ez, lankideak, bakoitza bere herritik, hain urruti eta, hain hurbil zerbait behar dugunean.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiet gure zalantzak argitzen saiatu diren guztiei, zerbitzutik eta beste liburutegietatik, eta gure inguruko bibliotekariei, zenbaitetan bisitak egin dizkiogulako elkarri, baita zenbaitetan araudiagatik haratago laguntzeagatik ere. Ba, duela egun batzuk iritsi zait beste lankide bati lekukoa pasatzeko garaia, eta bidaia luzea bezain oparoa izan dezala opa diot.

Argazkia bidali nahi nizuen liburutegian, baina konturatu naiz haurrenak ditudala, liburuenak, ipuin kontalarienak, bertsolarienak, idazleenak..., baina ez nireak, eta ondo iruditu zait, beraiek izan direlako LIBURUTEGIA.

Besterik gabe, agur bero bat eta, hemendik aurrera, mostradoreko beste aldetik elkarrekin jarraituko dugu.



Jaione

Lankideek Bilboko Udal Liburutegien Sareko Jaione teknikariarentzako desio onak bidali dizkigute:

2023ko abenduan Jaione U. E., erdi mailako teknikaria jublatu zaigu.

Bilboko Bidebarrietako liburutegian egin du lan azken urteetan, baina bere hasiera Otxarkoagako udal liburutegian izan zen.

Lankide guztien partez besarkada handi bat eta aurrera zure bizitza berriarekin Jaione! Bilboko liburuzainak

Kote

Hondarribiako Liburutegian Kote G. U. erretiroa hartu zuen 2023ko abenduaren 15ean.
36 urte liburuzain herri horretan, lagun batek berari idatzitako bertso sorta jarraian ipini dugu.



1. Abenduaren hamabostean,
hala duzu iragarri,
erretiratu zara aritu
ostean buru-belarri.
Merezitako esker keinurik
ez denez jasotzen sarri
nahi nizkioke zure lanari
hainbat bertso xume jarri.
2. Alde batetik, biblioteka bat
sortu duzu aidez alde.
Zenbait ikerlan historikoren
jabea zara, bestalde.
Ez dakit ongi jabetu garen,
behin eginda zure galde,
zenbat lan egin duzun gaurgero
Hondarribiaren alde.
3. Itsas Etxetik Zuloagara,
mandatuari jarraiki,
hogeita hamasei urtean zehar
lana egin duzu, baiki,
biblioteka bat ez baita inoiz,
aditu gisa zenbaiti,
eskuizkribu eta liburu
zaharrez soilik eraiki.

4. Gehiago dela konforme gaude,
baina gehiago zer da ba?
Erakusketa, tailer, liburu
eta ekimen bailara.
Zenbat hitzaldi, zenbat aurkezpen...
guztia Zuloaga da.
Gure kapital kulturalaren
hornitzaile izan zara.
5. Zeregin hori beste edonork
burutu zezakeenik
gauza jakina da eta ez dut
esango hala ez denik.
Baina horrela gertatu balitz
ikusi nahiko nuke nik
zuk adinako elegantziaz
egin abalko zuenik.
6. Baleen ehizaz Hondarribian
nahiz Konbentzio guduaz,
Hondarribiko itsaslapurraz
zein baserrien munduaz...
Inor kezkatu ez balitz kontu
horien iturburuaz
nekez jakingo genuke ezer
bizi dugun inguruaz.

7. Herri bat ezin da sortu bere
historia jakin gabe
zure alea eskaini duzu
izan dadin burujabe.
Hondarribitik harago ere
ez da pasa oharkabe
hori ulertu dugun guztiok
oso eskertuta gaude.
8. Sorta zintzoa eskribitu nahi
nizun, baina hala ote?
Ingurukoek, behintzat, hitzez hitz
gauza berbera diote.
Merezi duen horri aitortza
egin behar genioke
salbuespena ez zara eta
milesker, bihotzez, Kote!

Liburutegiak 23



© 2024

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak argitaratua.
Posta elektronikoa: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

LG: SS 1509-2005